

Karkara³⁰urte

karkara.eus

Egin ditzagun

31 **ESKUTIK!**

Orioko eta Aiako aldizkaria • 2019ko ekainaren 27a • 407. zenbakia



Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurrak-komunak-sukaldeak-ferrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 -behea (20810 Orio)
Telf./Fax: 943 134 717
Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com

LAGUNDU PLASTIKOAK MURRIZTEN

- 1-ZUZENEAN OTARREAN SARTU PRODUKTUA
- 2-BEHAR BADUZU, ESKATU ETA ERAMAN ETXERA GURE POLTSA BERRERABILGARRIAK
- 3-HURRENGOAN, ETXETIK EKAR DITZAKEZU POLTSAK

GOZATEGI
FRUTADENDA

BIO

XS arkitektura

obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

borja agiresarobe lopetegi 6 3 5 7 3 1 7 2 2
herriko-barra11, behea 9 4 3 1 3 4 3 5 8
20800 zarautz xs@xsarkitektura.com

www.xsarkitektura.com

Joseba
AROTEGIA • CARPINTERIA

687 683 427

josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- AROTEGIA OROKORREAN

Usurbil Autoak

Zumartegi Industrialdea, Aitzearra kalea, 24
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
usurbilautoak@gmail.com
Telf: 943 36 10 79

SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA

677 109 902 usurbilautoak@gmail.com

PANDA 4X4 	TALENTO 	QUBO 2
500X 	SPORTAGE 	SORENTO
STONIC 	NAIRO HYBRID 	

garay
manufacture

SUKALDEAK

www.garay.eus

1989tik sukalde altzarrietan lanean.

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU
Olabidea aldea 1 (Errotaberri Industrialdea)
20.800 Zarautz

943 13 31 09

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzan erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 740 279

Sagasti
LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Editorea
Karkara taldea
kultur elkartea

Erredaktore burua
Ainara Lasa

Erredakzio taldea
Onintza Aiestaran
Dorleta Agiriano
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Miriam Garcia
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun
Aiora Larrañaga

Publizitatea
Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak

Pello Saizar
Meltxor Artetxe
Iñigo Exposito
Iñigo Fernandez
Idurre Telleria
Nere Manterola

Diseinua
Saioa Perona

Banatzaileak
Endika Ruiz (Orioko)
Manex Dorronsoro (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Antza S.A.L
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Pello Saizar Luxarberi-ri jarri dio puntua Iñaki Larrañagak: Pello, animalia guztietan zein duzu zure kuttuna? Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

PELLO SAIZAR LUXARBE (DOINUA: EGUNA PASA NEKEAN ETA)

1

Pello, animalia guztietan zein duzu zure kuttuna?

Hau galdetu didanak badaki gaurko nere erantzuna. Amaren sabelean nenbilen hura zoriontasuna. Uste det hortik sortu zaidala, gaur daukadan maitasuna.

2

Lusarbetik atera omen zan Oriora erditzera, behor baten gainean jarrita garai bateko antzera. Ta ni nola ez hortxen nenbilen aurrera eta atzera, zaletasuna izateakin larritu iten altzera?

3

Nik abereak ditut gustuko hori da nire jarduna, elkarrengan sinisten degu ta bagoaz hortik barrena. Galdetzen diot nora goaztik hik erabaki aurrena, oso ondo konpontzen gera gu zaldia eta zalduna.



Hurrengo bertsolaria:

Asier Gozategi

Puntua:

Norabide onetik al ziak soinua?

Feminismoa, Zahartze aktiboa eta Europa

Azken hamarkadetan euskal jendarteak dinamika sozial bat hedatu du, non mugimendu berriak, banakakoak eta kolektiboak, mobilizatu egin diren; mugimendu hauek hausnartu egin behar dira azken urteetako jarrai bideei helduz. 2019ko uda ikastaroetarako lan proposamen ildoa *Feminismoa eta zahartze aktiboaren aurreratzea EAE-n, krisian den Europa sozialaren barruan* topaketak antolatu ditugu nik neuk zuzentzen dudana Helduak Adi *Euskadin Pertsona Nagusien Partaidetza Plan Integral egitearen aldeko sare soziala* elkartetik. Data : Ekainak 17-18-19. Hori dela eta Oriotarrok KARKARAn dugun tribunatik gogoeta bat luzatu nahiko nuke.

Borroka feministaren esparruan 2018ko martxoaren 8aren mobilizazio globalak mugarririk garrantzitsu bat markatu du, emakumeen asealdiari ikusgarritasuna eman baitio. Era berean, zahartzea dela eta, adineko pertsonen kolektiboaren barruan berariazko behar sozialen dibertsifikazioa adierazten da, batez ere gizarte osoari zuzenduta dagoen pentsioen aldarrikapenaren inguruan. Hau guztia Europa pairatzen ari den, eta aurrekaririk ez duen, identitate-krisi baten erdi-erdian. Hortaz, hausnarketa, hiru ildoetatik zuzenduko dugu:

1.- Europako egoeraren azterketa, Europa mailan egingo diren hauteskundeekin, non aldaketak espero diren Estatu askoetako estruktura instituzionaletan, ereduaren iraunkortasunean arazoak eragiten dituzten desberdintasunak erabakitzeko zain, *brevit*-aren ukatzea, immigrazio-politikak politika adostu bat exijitzen du Europa mailan eta EBren kontra dauden eskuin muturreko mugimenduak, eta abar. Gure aldetik, 60 urte integratuta egon ostean, gure ustez bada posible beste Europa bat.

2.- 2018an, feminismoak

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-rekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

aldarrikapen global baterentzako urratsak eman ditu fronte desberdinetan eta adierazpen desberdinekin: erantzunak gure Topaketarekin genero desberdintasuna gainditzeko funtsen planteamendu baterantz zuzentzen dira; familian, hezkuntzan, harreman sozialetan, lan harremanetan, eta abarretan. Aztertuko dugu ea generoak eta adinak parte-hartze sozialean zerikusirik duten, eta lana ikuspuntu sozioekonomiko eta Laboral batetik bideratuko dugu, eskura ditugun informazioak emanaz.

3.- EAEk Europako biztanleria zaharrena artatzearen erronkari aurre egin behar dio. Azken hamarkadatan gertakari honen garrantziaz jabetzen ari gara, eta egun neurrietan aurrera egin eta eguneratzeko prozesuari ekin behar diogu, baita oinarrizko diagnostikoan, instituzioen funtzionamenduan eta emaitzak hobetzeko elkarrekin zereginetan, baita zahartze aktiboaren inguruko proiektu eta esperientzietan.

Bizitza luzatzen doa eta luzealdeari ere eduki berriaz hornitzeko beharra sentitzen dugu eta lotzen ditugu bizitzakalitatea eta komunitateari sor diogun partaidetza. Orainsu arte partaidetza aktibo bat beharrezko

zela esaten genuen, gaur esan dezakegu ezinbestekoa dela. Ez badugu partaidetza aktibo bat, betez ere helduen komunitatean lortzen, gizarte honek eta gizartean gero eta zerbitzu gehiago jarri nahiak, ez du etorkizunik, beste gauza askoren artean dirurik ere ez delako egongo. Eta gainera, gaur, edadetuok gizartearen 1/3 osatzen badugu eta horietatik %20 dependentea, hau da besteren beharra duena, bada, multzo hori ere handitu egingo da.

Ea buruan ditugun helburuetara hurbiltzen garen eta probetxugarriak suertatzen diren topaketa hauek.

• Antonio Campos

Irakurritz gozatu

Zoritxarrez, aurtun Orioko Liburutegiak ezin izan du parte hartu, Irakurri, Gozatu eta Oparitu, kanpainan. Hau da: Euskal Herriko Liburutegi zabal batek literaturazko euskarazko liburuak irakurtzea bultzatzeko helburuarekin. Pena handia, bai horixe! Bada, egitasmoaren helburua, lehenik euskal literaturarekin zaletzea da, eta aurrerago, zuk ere euskarazko liburuak erostea herriko liburutegietan. Azken batean, gure euskal literaturari bultzada emateko. Merezki baitu.

Hala eta guztiz ere, herrian liburutegia izatearekin, a zer nolako pagotxa dugun irakurleok. Izan ere, liburutegian aukera zabala dago bertako idazle euskaldunek idatzitako liburuak irakurtzeko; edota, erdaratik euskarara itzulitakoak. Eta mundu guztiarentzako gustuko liburuak: eleberriak, saiakerak, poesia eta antzerkia. Eta ahaztu gabe, ikasketei laguntzeko ere, beste hamaika liburu gai desberdinez dagoela.

Gainera, Orioko herriko liburutegian nahi dugun liburua ez balego, eta Euskal Herriko beste edozein herriko liburutegi batean libre egonez gero, hamar bat egun itxarotea besterik ez dugu egin behar, gure eskuetan liburu kuttun

hori izateko: horretarako, gure liburutegiko arduradunari eskatzea da egin behar den gauza bakarra.

Eta premia handia edukiko bagenu liburu jakin bat lehenbailehen eskuratzeko, eta Orioko liburutegian ez balego, baina bai gure herriko ondoko herrian, ba, hara gerturatu, eta zure bazkide txartela erakutsiz –hau ere liburutegi bertan egitea dohain dena–, emango dizute eskatutako liburua.

Izan ere, literatura munduan sartzea, gehiegizkoa da. Benetan! Ni neu –eta hori oso berandu izan zen, soldaduska joateko nintzela, hain zuzen-, murgildu nintzen literaturan. Eta txirripaz izan zen, aizue! Bada, orduantxe ailegatu zen lehenengo liburua nire eskuetara: *Viven* –Bizi dira–. Eta orduko Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren esker izan zen hori: bezeroei liburuak oparitzen hasi zelako, garai hartan. Liburuaren gaia zela eta –Chileko Andeatako mendikatean 1973an Errubiko jokalaritza talde bat galdu baitzen, hegazkinak istripua izan ondoren–, halako gogoarekin heldu nion, non otorduetan ere plateraren aurrean jarri, eta irakurtzen nuen gogo handiz. Egia aitortzeko, literaturan mundu berri bat aurkitu nuen.

Geroztik, liburuarekiko halako zaletasuna nigan sortu zen, harrapatzen ditudan liburu guztiak irakurtzen ditut. Eta jakina, niretzako opari onena izaten da, liburu bat jasotzea.

Lehenengo liburua gaztelaniaz irakurri banu ere, egun, gehienak euskarazkoak izaten dira; eta aurreneko eleberria, Andu Lertxundiren *Goiko kale* izan zen.

Orioko herriko liburutegira

Gutunerako oharrak

KARKARA 406 zenbakian Karela Kiroldegia *Mikel Bordari erantzuna* gutuna argitaratu zen orrialde honetan.

Akats bat medio ez zen gutuna osorik agertu. Irakurri nahi duenak, karkara.eus atarian aurkituko du.

itzuliz, aukera ezin hobea dugu edonork, eta musu-truk gainera, liburutegian bertan, edota, etxera eramanda bizpahiru aste barru itzultzekotan, merkatuan dagoen edozein liburu zaharra nahiz berria irakurtzeko.

Beraz, anima zaitetze, eta egunero euskaraz irakurtzen gozatu!

• **Eukeni Santamaria**

Hitzaldia

Uztailaren 9an, asterartearekin, arratsaldeko 18:00tan, Xabier Mendaraz kiropraktiko eta fisioterapeutak hitzaldi bat eskainiko du Orioko Salatxo aretoan.

Hitzaldiaren izanburua *Bizkar hezurreen bilatu gaixotasunaren kausa* da.

Izan ere, gaur egungo gaixotasun asko bizkar hezurreen desorekaren ondorioz sortzen dira, Xabier Mendaraz kiropraktikoak gako batzuk emango ditu gure bizitza kalitatea hobetzeko.

Hitzaldiak 40 minutu inguru iraungo du eta adin guztietako herritarrentzat zuzenduta dago, sarrera doakoa izanik.

• **Xabier Mendaraz Zentro Kiropraktikoa**

JAIOTAKOAK

- Unai Peña Lizaso, maiatzaren 1ean.
- Haitz Garmendia uranga, maiatzaren 21ean.
- Nora Egiguren Karrera, maiatzaren 22an.

HILDAKOAK

- José María Astigarraga Olaizola. Orion, ekainak 1ean, 74 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Joseba Mujika eta Nora Solano, maiatzaren 25ean, Orion.
- Patxi Xabier Etxaniz eta Cristina Isabel Barberena, maiatzaren 30ean, Orion.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27

HAURDUNENTZAKO IGERIKETA IKASTAROA
Ariketa fisikoa uretan
+ info harreran

NATACIÓN PARA EMBARAZADAS
Actividad física acuática
+ info en recepción

KARELA



Ondo pasa
San Pedro
Jaiak!

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotorosanaarruti@gmail.com
telf: 943 83 58 45





A. G. de Txabarri, J. Gaiton, A. Iturain, J. Zabaleta,
N. Manterola, M. Etxeberria, I. Iturain, M. Arruabarrena.



J. Goikoetxea, J. Zabaleta, M. Etxeberria, I. Iturain, P. Cowie, A. Iturain,
A.G de Txabarri, N. Manterola, G. Azpiroz, A. Peña, R. Uzkudun, E. Lasa.



J. Orella, O. Aiestaran, E. Manterola, I. Agirrezaldegi, J. Zabaleta,
I. Gurrutxaga, I. Gaiton, L. Berasaluze, A.G de Txabarri, I. Lizarralde,
P. Cowie, R. Uzkudun, M. Etxeberria.

31 zuen eskutik

“Eta lortu esaten dugu, gauzak diren bezala esaten hasita, ez delako erraza izan.”

L 989ko San Pedro eguna, KARKARAren lehen zenbakia atera da. 500 ale. Airean joan dira. Herriargaldezka. Anduren artikulua, sagardoaren erreportajea... hasi da biajia! Errezibimendu ederra izan du lehendabizikoak. Abante!

Bada, hutsik egin gabe, KARKARA kalean izatea lortu dugu 30 urte hauetan: sei hilabetero hasierako txanpan, hilero-hilero lehendabiziko luzean, hamabostero-hamabostero ondoren eta hilero paperean eta egunero pantailan laugarrengo luzean. Eta lortu esaten dugu, gauzak diren bezala esaten hasita, ez delako erraza izan. Lan handia dago KARKARAren albiste, erreportaje, argazki, bideo bakoitzaren atzean; seguruenik, aiar eta oriotar askok uste baino handiagoa.

Lan handia dago, baita ere, udaletxeko bulegoetan, kirol taldeetako zuzendaritzetan, eskoletako guraso elkarteetan. Ez dago zalantzarik, herri baten martxa ona, ligako igoerak, banderak eta haurren garapen eta poztasunek lana daukate atzean. Zinegotzi batzuk, esate baterako, atsedena hartuko dute aurki, futboleko zuzendaritzakoek ere bai, irakasle eta gurasoek baita, arraunekoek udazkenean eta guk ere *ya!* Gezurra badirudi ere uztaila da gure atsedeen hilabetea.

Ekainak eman ditu ia bereak, Anuska eta Nekane izango ditugu alkate, San Nikolas txalupako zaindaria, atuna arrantzaleen ipar, eta KARKARA gure historiaren gordeleku. Hala nahi genuke behintzat, idazten jarraitu eta 31 zuen eskutik konplitu. Gure erredakziotik onena opa dizuegu denoi. Ondo pasa sanpedroak eta udara!

Gaupasarik egin al duzu inoiz San Pedro Jaietan?



“Plazara hurbiltzen gara musika dagoenean.”

Egia esan inoiz ez dut egin gau pasarik San Pedro Jaietan. Behin bakarrik egin dut eta urte zahar egunean izan zen.

Orioko san pedroetara oso gutxitan etortzen ginen gu gaztetan. San Pedrora joaten ginen eta hantxe pasatzen genituen festak.

Han trikitia eta egoten zen eta horregatik joaten ginen hara, oso gustuko dugu eta erronomia.

Orain Orioko jaietan geratzen gara, afariren bat egiten dugu eta ondoren plazara hurbiltzen gara musika dagoenean.

Juani Agirre



“Herriko festak ospatzea asko gustatzen zait.”

Eai askotan egin izan dut gaupasa festetan; San Pedro eta San Nikolas Jaietan.

Herriko festak ospatzea asko gustatzen zait, musika pixka batez gozatzen dut, lagunekin ateratzen naiz, afariren batera ere joaten naiz normalean...

Bertako jaiak tokatzen direnean ia beti geratzea gustatzen zait, ongi pasatzen dut. Eta beste herrietan jaiak direnean, berriz, hemendik ateratzea gustatzen zait, festak aukera bikaina dira inguruan ditugun herriak hobeto ezagutzeko.

Yasser Silveira



“Inoiz ez naiz atera *gaupaseroen* argazki ofizialean.”

Eno... goizeko ordu txikitik. Kutixi kafetegitik ogitartekoa janaz paxara egin eta etxera joatea gaupasa kontsideratzen bada, bai, urtero.

Hala ere, normalean festa bakoitzean egun batez bakarrik egiten dut, San Pedro egunez, bazkari-afari luzatua izaten dugu eta konturatzerako hurrengo eguna iristen da. Eta uste dut inoiz ez naizela atera *gaupaseroen* ohiko argazki ofizialean. Behin gogoan dut argazkia atera genuela, baina ez ziren festak, argazki estroaiziala izan zen!

Gaiuri Unanue



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO
ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
 iglesiaserrajerros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA



Desatascos
688 886 536
 desatascos@desatascoslaster.com
 www.desatascoslaster.com

24 ORDUKO



Hodi-libraketa
 Garbiketarak presio handiko urarekin
 Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa
 Hodian, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin
 Uholde urak ateratzea
 Ezkutuko kutxatilen detekzioa

Sagar erreka 21-A • 20590 Soraluze
 Abaramendi bajo 3 • 20810 Orío
 Tel.: 943 751 431

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa



15eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio

943 134 889 argine/jantziak

zkue
auto

Tf: 943 130 438

zkue
auto

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

ELEKTRIZITATEA
Ander Exposito
943 831 774
600 856 728
anderexpoelektrizitatea@gmail.com

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Seguros Bilbao

Telf: 943 111 600
688 714 869

Endaia Enparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa) e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

Santi Barranco
Orioko ordezkaria

Katu MORIA
albaitaritza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
+el. 943 11 66 99

Larrialdiaik
668 89 11 29

www.katumoria.com

K-U-K-U-A-R-R-I
ELEKTRIZITATEA

Tel.943 100 181
Mobila 640 281 308
Zigordia, 52 - Behea C
20800 Zarautz
kukuarri@kukuarri.com

fontaneria-fontana.com

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoan instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

fontana
iturgintza

Plaza Endaia Nº1, 20810 - Orio
fontana-ju@hotmail.es
943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA • GASA • BEROGAILUAK

zerbitzu teknikoa
24 ordu

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL-F - 943 572 083
FAX - 943 571 190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

info@egarmendia.com

Tf:943 834 466-Fax: 943 132 941
Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio

ITZIAR KIROLAK

Tel.943 83 31 03

Reebok ALTUS trang world
adidas new balance crocs CMP
ASTORE

Izaskun Estankoa

Tabakoa-Prentsa-Eskola materiala
Opariak

Astelehendik ostiralera
8:00-13:00 - 17:00-20:00
Larunbatetan eta igandetan
8:00 - 13:30

Eusko Gudari, 23-20810 Orio - Tel.: 943 831 212

Ile apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

ttipi
ttapa

943259695
ttipittapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio



Garaipena ospatzen 1970ean, Isidro Iturain, Juan Altxerri, Jesus Mari Aiestaran, Jose Antonio Salsamendi, Antonio Campos, Patxi Sarasua eta Juan Inazio Perona.

Oroimenaren kutxa

Traineruari segitu ezinik

Tarkarak 30 urte beteko ditu sanpedrotan, eta hemen segitzen dugu Orioko eta Aiako kontuak idatziz kontatzen. Lagun batek esan zidan hasiera hartan: *Orio txiki honek ez dik ematen aldizkari bat betetzeko*. Baina ematen du bai, ematen duenez! Albiste batzuk topatu egiten ditugu, beste batzuk bilatu.

Lehengoan, dentistaren itxaron-gelan nintzela, kirol-aldizkari bat ireki eta erreportaje bat topatu nuen: *Imanol eta beste sei*. Aurten lehen mailako futbol ligan izango diren zazpi euskal entrenatzaileei ari zen: errealeko Imanol oriotarra, bi Garitano, Arrasate, Mendilibar, Valverde eta Lopetegi. Euskal futbolak duen maila ona erakutsi nahi zuen. Dentistarenetik aterata, Ibon Gaztañazpi kirol-kazetariarekin topo egin nuen; zazpi entrenatzaile euskaldunena azaldu nion. Ibonek, trukean, anekdota hau kontatu zidan: *Hondarribia eta Irun hartzen dituen Txingudi badiako hiru kirol talde ezagunenek oriotarra dute buru: Hondarribiko arraun taldeak Mikel Orbañanos, entrenatzaile; Irunen, eskubaloiko Bidasoak Jon Azkue, kapitain; eta futboleko Real Unioneak, Josu Esnaola. Orioko kirolarien mailaren erakusgarri polita da*. Euskal futbola ez ezik, Orioko kirola ere aparretan dabil. Oraintxe hasi berria den trainerudunboraldian, nesken taldea denboraldi historiko baten atarian dago; mutilen koadrila, berriz, ezin zen hobeto hasi: bitik bi bandera.

Euskal Herria bezalako munduko nazio txikietan, gauza inportanteetan galtzen ohitutako herrietan, porroten zauriak goxatzeko, kirol-garaipenak gorai patzen ditugu askok. Joera naturala da errealtatearen alderik goxoenari begiratzea, albiste onak modu baltsamikoan erabiltzea; eta kirolaren indarrari erreparatzen diote: *Zerbaitetan behintzat irabazten dugu*.

Garaipenak oroitzen hasita, adin bateko euskaldun asko gara XX. mendeko 80ko hamarkadari begiratzen diogunak. Batzuek errealak eta Athleticek bien artean lau urtez segidan irabazitako ligak aipatuko dituzte –1981etik

84ra–. Badira Euskadi Irratiaren sorrera aipatuko dutenak ere, edo Euskal Telebistarena, biak 1982an sortuak, euskaldunoi informazioa euskaraz emateko. Hamarkada emankor hartan sortu zen KARKARA ere, 1989an. Holako herri txikian euskarazko aldizkari bat sortu eta 30 urtez bizirik irautea ere garaipentzat hartu beharko dugu, ba, ezta?

Urte haiek ezagutu genituenok oroi-minez gogoratzen ditugu. Franco hil eta, diktadura bukatuta, gauza berri asko etorri zitzaizkigun, baita orduan izugarritzko ilusioa sortzen ziguten hauteskundeak ere, orain batzuetan horrenbeste amorratzen gaituztenak. Hasiera-urteak ziren alor askotan, eta gauza asko oso modu prekarioan egiten ziren –genituen–.

Sanferminetan jubilatzekoa den *Txapas* kirol kazetari azpeitiar ezagunak kontatua da ondorengo anekdota: *1987an Getaria Donostia estropada uretatik eman genuen zuzenean. Horretarako, Euskadi Irratiak uretako motora bat alokatu zuen Getarian. Ontzian, nirekin batera, arrauneko bi aditu nituen: Lujanbio sanjuandarra eta Juanito Altxerri oriotarra. Altxerrik sartu orduko esan zidan: 'Hau al da motora? Honek ez ziek segituko traineruei!'. Hark arrazoi: estropada abiatu orduko, hasi zen ontzia atzean gelditzen, traineruak gero eta urrutiago. Ikusi ere egiten ez nituela eman nuen estropada irratis, asmatuz. Bukatu zenean, Donostiako moilan lehorrerata, Euskadi Irrati-ko zuzendaria urreratu zitzaidan, Jose Mari Otermin. Ni, beldurrez, kristoren errieta egingo zidalakoan; eta Oterminen: 'oso emanaldi ona egin duzue'.*

Gauzak horrela ziren garai hartan. Nik, uretakoan ez, lehorreko moto batean eramaten nituen –Vespan–Karkarako albisteak, artikuluak eta argazkiak, paperean, Donostian Argia aldizkariak. Tabakalera ondoan zuen inprentara, han aldizkaria argitaratzeko. Horrela hasi ginen neska- mutil gazte batzuk: bitarteko gutxi baina ilusio handiarekin. 30 urte geroago, Interneten garaian, hemen segitzen dugu, gauza inportanteenak aldatu gabe.

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

niko
taberna

Karta · Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

ITZALA

*kartetan jokatzeko
aproposa*

tel. 943 83 12 59

KOLON TXIKI
etartegia
jatekua

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

arkaitz taberna
... orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin
giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

ARISTERRAZU
jatekua

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

ASADOR XIXARIO

Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

Zaragueta
Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezuntza.net

Portu
ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, zig
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

*kazolifik, baserriko oilaskan
parrilako errekiak eguneko menua...*

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

etartegia

ANTILLA
jatekua

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

ETXEKO BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA

PARRILA

BODEGON SARASUA
ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

Zarautz
Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra

Harrespil
Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz

Lasarte-Oriako oriotarrak Hendaiatik (IV)



Meltxor Artetxe

**Ezerezetik sortutako
arraun taldea ezerezera
itzuli zen kolpetik,
ibilbide labur bezain
oparoaren ondoren**

**Aurreko zenbakiko testuaren jarraipena...*

Baina Oriotarrak ez zeuden lotan, ezta galduta ere –stand by-en agian?–, eta berragertu zirenean horien erakustaldi harrigarriak ikusi genituen, arraunketa-estilo berriarekin, prestaketa egokiagoarekin, arraunlarien gorpuzkeran ere aldaketak nabariak ikusten ziren... esan daiteke nolabaiteko iraultza ekarri zuela Oriok traineruen mundura! Sei urtetan bost garaipen eskuratu zituen Donostiako badian, Santurtziko Soterari eta Sestaoko Kaikuri txanda eman aurretik. Bost garaipen horien erdian, beste bandera bat irabazi zuen Lasartek 1973an, oraingoan Antonio Oliden patroiz zela.

Gogoan dut niretzat oso urte bereziak izan zirela. Oriotarra izanik, 1969an baneramatzan zazpi urte Lasarten bizitzen eta bertako trainerua animatzera joan nintzen, Oriok ez baitzuen parte hartu urte hartan. Baina ondorengo urtetan biak lehiatzen zuten eta bihotza zatitua izaten nuen!

Urte gutxitako borroka izan zen hala ere. 1979a izan zen azken urtea lasartearrentzat eta ezerezetik sortutako arraun taldea ezerezera itzuli zen kolpetik, ibilbide labur bezain oparoaren ondoren –aipatutako Kontxako bi garaipenez gain, hainbat bandera eta txapelketa garrantzitsu lortu zituen Orioko *mertzenarioek* zuzendutako taldeak–.

Urte batzuen ondoren, traineru sasoiari Lasarten arnasten den giroa Orioren aldekoa dela esango nuke eta pozgarria da niretzat urtez urte giro hori sumatzea.



Iñigo Exposito

Utzi loratzen

Erriko plaza. Jai bezperako arratsaldea. Eguraldia lagun. Haur eta gaztetxoak jolasean. Gazte, heldu eta adineko jendea solasean. Espazio bera partekatzen. Espazio berean esperimendatzen. Baloia gora, baloia behera, soka gora eta soka behera. Korrika, harrapaketa eta berek bakarrik ulertzen dituzten jolasetan. Lurrean aurkitutako hau zer ote? Zer da nire begien aurretik pasa dena? Ikasten. Jolas berriekin gozatzen. Uneoro esperimendatzen.

Bigarren behaketa bat egin diot nire inguruari. Ezker, eskuin. Haur, gazte eta heldu. Guztiak geldirik, isolatuta. Pantailak, debekuek eta beldurrek harrapatuta. Ez solasaldirik, ez jolasik, ezta esperimendaziorik ere. Eroso. Arriskurik hartu gabe. Gure gizartearen egunerokoa. Ohikoa eta normala. Kontrolpean eta kontrolatuta. Uneoro zertan gabiltzan komunikatuta.

Aska gaitezen eta aska ditzagun guk geronek jarritako kateak. Zabal ditzagun bizitzaren ateak. Arriskatu gaitezen. Ireki esperimendaziora. Probatu, aholkatu, ilusionatu eta gozatu. Ez beldurtu. Jokatu ausart. Utzi gazteenei loratzen eta jarraitu dezagun guztiok loratzen. Jarrera kontua da. Inoiz ez da berandu.



Danbolin musika eskolako kideak.

Aldaketak datoz Danbolin-en

Elena Errasti, Danbolin musika eskolako zuzendariarekin solasaldian aritu gara ikasturte berrian izango diren berrikuntzak hizpide hartuta. **Herriak ala eskatuta, metodologian adar berriak** txertatuko dituzte hemendik aurrera.



“Ikasle batzuk nahi duten bakarria instrumentua jotzea da, ez dira ohartzen musika mintzairak duen garrantziaz.”

“Irakasgai guztietan teknika bat lortu beharra dago, ondoren inprobisazioari hegan egiten uzteko.”

TESTUA: INTZA UNANUE

ARGAZKIAK: INTZA UNANUE, SORKIDE

Ikasturte berriari begira berrikuntzekin datoz Orioko Danbolin musika eskolako irakasgaiak. Bezeroen behar eta eskariei erantzunaz, metodologian hainbat aldaketa egingo dituzte datorren irailean hasiko den ikasturtera begira. Izan ere, azken urte hauetan aisialdiko eskaintza asko zabaldu da Orion. Haurrak, ikastetxetik atera eta egunero egunero aisialdiko ekintzaren batean parte hartzera ohitu dira.

Aisialdia okupazio bihurtuta

Urte luzez, Danbolinen, 4-6 urte bitarteko haurren mintegian bi klase izaten zituzten astero, batean musika lantzen zuten eta bestean psikomotrizitatea, dantzaren bitartez. Elena Errasti Danbolin musika eskolako zuzendariaren arabera, ordea, irakaskuntza metodologian aldaketa bat behar zen: *Konturatu gara geroz eta azkarrago hasten direla haurrak bestelako aisialdiko ekintzetan parte hartzen, eta ekintza aukera hori geroz eta zabalagoa denez, musika eskolara birritan etortzea askorentzat ezinezkoa edo zaila zen jada.* Egoerak bultzatuta, hurrengo ikasturtetik aurrera bi arloak batuko dituzte: *Klase bakarria izango dute astean gure ikasleek, erdi eta erdi zatituta.*

Bigarren zikloko ikasleentzat ere, 7-11 urte bitarteko haurrentzat, berrikuntzak izango dira datorren ikasturtean. Maila honetako ikasleek alde batetik musika hizkuntza irakasgaia dute, solfeoa, eta bestetik instrumentua. Orain arte musika eskolako diploma lortu ahal izateko aukera bakarria zuten, musika eta instrumentua ikasten bost urte igarotzea eta musika taldeetan parte hartzea: *Konturatu gara lehen aipatu bezala, aisialdirako aukera ugari dituztela ikasleek adin horretan, eraginez, denek ez dituzte nahi bost urte igaro hizkuntza musikala jorratzen eta pixkanaka uzten joaten dira musika eskola, geroz eta gazteagoak izanik.*

Danbolineko irakasleek, hala ere, betiko bideari eman nahi diote garrantzia: *Hezkuntza musikal oso batek orain artean bezalako izan beharko luke.* Jendearen eskariak ere kontuan hartzearen aldekoak dira, ordea. Horregatik, *abaniko berri bat ireki dute musika eskolan. Lehen hiru musika mintzairako ikasturteak nahitaezkoak izango dira, baina haurrak planto egiteko aukera izango du puntu horretan, bost urteak osatu beharrean: Jarraitzen badu, diploma lortzeko aukera izango du, hirugarren urtean geratuta, ez.*

Musika uzten duen haur horrek instrumentuarekin jarraitzen badu, nahitaezkoa izango du taldeetan parte hartzea, izan ere, *Danbolinek taldeekin eragiten du herrian, trikiti taldea, banda, txistu taldea... Haurrei ez*



Elena Errasti, Danbolin musika eskolako zuzendaria.

badiegu parte izatera behartzen, ezinezkoa izango da Orioko kulturen parte hartzea, dio Errastik.

Musika mintzairarekin zalantzan

Ikasleek, jada, ez dute solfeoa ikasi nahi izaten. Errastiren esanetan irakasteko modua asko aldatu bada ere, gogorra egiten zaie: *Gela guztietan ordenagailu bana dugu, horrek zabaltzen digun mundu guztiarekin, arbel digitalak ditugu... aukera ikaragarria ematen digu horrek baina ikasle batzuk nahi duten bakarria instrumentua jotzea da eta ez dira konturatzen musika mintzairak duen garrantziaz. Zuzendariak argi du: Hizkuntza kontrolatu gabe posible da hitz egitea, baita jotzea ere, baina oso era mugatua.*

Ikasle askori, ordea, ez zaie axola alderdi hori, eta, mintzairari garrantzia eman baino nahiago dute dena utzi. Guraso askok ere ez dute haurra bost urtez solfeora sartu nahi, serioegia dela iruditzen zaie, dio Errastik. *Egungo aktibitate guztiak mugimenduarekin lotzen dira eta eserita kontzentratuta egotea eskatzen duen bakarrenetakoa da musika eskola. Oraingo haur eta gazteak segunduro gauzak aldatzera ohituta daudela dio zuzendariak: Kontzentrazio falta ikaragarria ikusten zaie, ezinezkoa da haurrak lurrian mantetzea kanta bat ikasteko ere. Egoera horren aurrean irakasleek bide berri bat zabalduko dute hemendik aurrera, izan ere, ikasle horiek dena utzi baino gustura sentitzen direnarekin jarraitzeari garrantzi gehiago eman nahi*

diote Danbolinen.

Instrumentua aukeratzeko momentua berezia izaten da haur askorentzat, ilusioz heltzen diote bideari. Herritarren eta musika eskolaren artean, ordea, hika mikak sortu izan dira aukeraketa metodologia dela eta. Garai batean librea izaten zen instrumentuaren aukeraketa, baina Errastiren esanetan: *Taldeko liderrak tronpeta esaten bazuen denek hori nahi zuten, gero pianoa esaten bazuen denak pianora.* Era honetara, taldeetan belaunaldien arteko *hutsune handiak* sortzen ziren.

Egoera hori bideratzeko modu bat lantzea erabaki zuten Danbolinen. Sistema bideratu beharra izan zuten taldeak mantentzeko era baten bila: *Ikasturtean zehar tailerra bukatzen dabiltzan haurrekin lanketa sakona egiten dugu puntu honetan. Haurrak normalean ez du obsesioa instrumentu batekiko, agian bakar batek oso umea denetik badaki zein instrumentu ikasi nahi duen baina 20tik bat izaten da. Besteak erraz bideratzen dira.*

Lanketa honetan haurrek instrumentu guztiak probatzeko aukera izaten dute ikasturtean zehar, horrez gain: *Hirugarren hiru hilekoan, ikasleek gurasoekin etortzeko aukera dute instrumentua gertuagotik ezagutu eta probatzera.* Ondoren, haurrak hiru aukerako zerrenda egiten du eta irakasleek horren arabera *bideratzen* dituzte instrumentu batera edo bestera, *filtro batzuk pasa ostean.*

Zuzendariak azpimarratu du, kalean geratzen den mezua, instrumentu bakoitzeko bi plaza bakarrik daudela dela, baina egoera ulertu beharko luketela herritarrek:



Danbolin musika eskolako ikasleak 2018ko San Pedro jaietako txupinazoan.

Nik guraso bezala ulertu dezaket ez dela egokia, baina musika eskolaren zergatia entzutean ulertzeko modukoa iruditzen zait. Beste musika eskolekin ere hitz egiten dugu eta ez dago sistema perfekturik, beti dago akatsen bat. Zaila da.

Emanaldiak urte guztian

Zuzendariak aipatu bezala, Danbolin musika eskolarentzat, berebiziko garrantzia du talde gisa lan egiteak, herrian, kulturean, eragiteko: *Musika eskola bezala eragitea zaila da indibidualki pentsatuz gero. Txupinazoa, banda, kalejirako txistulariak... Kultura mailan parte hartzeko beharrezkoak ditugu talde guztiak.* Errastiren arabera, gainera, taldean gehienak gustorago sentitzen dira, gustatzen ez zaionik ere badago, kasu horretan: *Haurrak sentitzen duen beldur hori kentzen edo kontrola dezan irakasten saiatzen gara.*

Horregatik, urtean zehar egiten diren emanaldi guztiak helburu pedagogikoa izaten dute Danbolinen. Instrumentu bakoitzarekin entzunaldiak egiten dituzte, gurasoei bideratuak, bertan parte hartzaile guztiak irabazten dute zerbait: *Elkarrekin jotzeak besteengandik asko ikastea bideratzen du, izan ondo egin duelako, edo baita zerbait gaizki egin duelako ere. Hurrengorako badakite zer egin behar duten eta zer ez.*

Entzunaldi horiek kultur etxean egiten badira ere, beste emanaldi guztiak kalera eramane dituzte, herriaren aurrean egiten dutena aurkezteko, Santa

Zezilia eguna eta Danbolin Fest, besteak beste.

Dantza indarrean

Musika eskolak eskaintzen dituen zerbitzu edo adar guztietatik badu bat, zailtasunak zailtasun, indar berberari eusten jarraitzen duena: Euskal dantza tradizionalak. Zuzendariak behin eta berriz azpimarratu moduan, azken urteetan estraeskolaren eskaintza izugarri handitu da. Tartean, dantza akademiak sortu dira, eta zuzendariak argi esan du: *Nahiz eta jada deseginak egon, akademia horiek sortu diren urtean gure matrikulak nabarmen erori dira.*

Dantzako alor honek urte asko daramatza martxan, ikasleek gauza berriak nahi dituzte, izan ere, asko gustatzen zaie orokorrean, koreografia berritzaileak asmatzea, tradizioetik alde modernora salto egitea: *Pizgarri bat damaila batetik aurrera koreografekin hastea baina alde txarra ere badu horrek, dantza tradizionaletikiko gustoa galtzen dutela haur zein gaztetxoek. Egia da, ordea, urteekin berriz ere tradizioarekiko gustu hori askori bueltatu egiten zaiela.*

Horregatik, balantzak luzaroan egonkor irauteko, Ander Errasti dantzako irakasleak, ikasleekin jendaurrean eskaintzen dituzten ekintzetan bi zatiak jorratzen ditu: tradizionala eta koreografiaren.

Gauza bat argi baitute Danbolinen: *Irakasgai guztietan bezala teknika bat lortu beharra dago, ondoren inprobisazioari hegan egiten uzteko.*



Iñigo Fernandez Ostolaza

Posta zerbitzua, arauak eta robotak

Gorbatadunek arinduko dituzte arauak diruaren joan-etorria errazteko, ziur. Baina nor arduratuko da hankabiko arrunton estresaz, mugimendu askatasunaz eta hazkunderaz?


Uskalduna eta jatorra ematen du, baina ez dizu eman nahi zuen amaren izenean iritsi den gutun ziurtagiria. Baimen orria sinatuta ekarri behar duzula. Baina nola sinatuko du oportetan baldin badago? Momentuan bertan, nortasun agiriaren bi argazki bidali dizkizu amak *watxapez*, erakutsi dizkiozu *Correoseko* emakumeari, baina ezetz, horrek ez duela balio. Esan diozu nahi badu jarriko duzula amarekin telefonoz. Ezetz. Erregutzen diozu, garrantzitsua dela gutuna, tontakeria litzatekela burokrazia kontutxo bategatik hura jaso gabe uztea. Eta *Correosekoa* berriro hasten zaizu dena errepikatzen. Dagoeneko ez dakizu pertsona batekin ala robot batekin ari zaren.

Sistema da, sistema. Gero eta burokrazia gehiago dago, denean. Arauak, agiriak, prozedurak, mugak. Langile bakoitzak bere ardurak estuki bete behar, zigorren beldur. Bankuak ordu jakin batzuetan bakarrik eskainiko dizkizu zerbitzu asko. Legea alde dutela jarraitzen dute jendea etxegabetzen astero. Orioko hondartzara zoazen bakoitzean bost kamerek grabatzen zaituzte. Gaztetxoak bizikletan kaskoa jantzi behar dute legez derrigortuta. Txakurrak lotuta bizi behar du. Errefuxiatuei itsasoan laguntzea ilegala da. Moilan bainatzea debekatuta dago.

Ez da egia dena pixkanaka hobera doanik. Eta txarrena, askotan, ez da sistemaren logika zentzugabea, baizik eta arauak zintzoegi onartu edo areagotzen dituztenen jarrera. Gauzak errazteko baino, legeak estu betetzeko dauden burukarratu edo robotena.

Batzuk ohartu dira gehiegizko araudiak enpresen *ekimena eta mugimendu askatasuna* murriztu egiten dituela. *Estresa* ekartzen omen die enpresei, eta *hazkundera* eragotzi. Gorbatadunek arinduko dituzte arauak diruaren joan-etorria errazteko, ziur. Baina nor arduratuko da hankabiko arrunton *estresaz, mugimendu askatasunaz eta hazkunderaz?*... Kritikotasun apur bat beharko dugu, arauzale edo araujale baino gehiago, zentzudunak izaten jarraitzeko.

Correosekoak langile fina izan nahi du, eta agian bururatu zaio enpresan gora abisua ematea: eskaini behar luketela moduren bat internet bidez-edo baimena emateko. Ea hor ere bizitza errazteko bide berriak sortzen dituzten, eta ez muga gehiago. Bestela, pauso honetan, keatzeko kemenik ere ez zaio geldituko bere ordeztuak jartzen dituztenean.



Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4

Tel. 943 894 024

Fax. 943 130 144

20809 AIA - ORIO



Bisiguaren Festa 2019

Uztailak 12, 13 eta 14

Bisiguaren Festaren hamabigarren edizioa uztailaren 12an hasi eta 14ean amaituko da. Aurteko urteetan bezala, aurten ere herriko plaza jaialdi gastronomikoaren gune nagusian bilakatuko da. Bertan egingo dira festaren oinarri diren lau otorduak.

Urteroko legez, Orioko Udaletik Bisiguaren Festan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu, otorduetan eta bestelako ekitaldietan.

Otorduetarako erreserbak egiteko epea uztailaren leian zabalduko da eta egun horretan oriotarrek soilik izango duzue txartelak erosteko aukera. Erreserbak 943 83 55 65 telefono zenbakian egin behar dira, 10:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 18:00ak arte -igande arratsaldean bulegoa itxita egongo da-.

Orioko plazako jatetxe dotorean bisigua prezio erakargarrian dastatzeko aukera izango da. Txartelen salneurria 55 €koa da. Aurten jatorduen antolatzaile Divinus Catering-a izango dugu eta menuan parte izango dute Oriomar arraindegiak, Errasti, Atxega, Zipri, Katxiña eta Sayalero etxeek. Menua honako hau izango da:

- Nafarroako zainzuriak
- Tomate eta hegaluze entsalada
- Bakailao kokotxak saltsa berdean
- Bisigua parrilan Orio estilora
- Postrea

Menuaren barruan edaria, ogia eta kafea sartzen dira. Bisigua erretzen, orain arteko edizioetan bezala, Joxe Miel Zendoia -Kaxina-, Luis Mari Uranga -Xixario- eta Mikel Manterola -Joxe Mari- izango dira. Animatu zaitzete eta gozatu!



MENDIZABAL
AROTEGIA
*Neurriko armairuak
eta egurlanak*

943 831 175 Altxerri bidea
645 708 491 Beti-Alai etxea
mendi@arotegi.net 20810 Aia-Orio

Moda eta orazariak
igande goiza zabalik!

Garbiñe Arriaga
Herriko plaza, 5 - Orio • 635 706 265

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Sinergia | fisioterapia & ikerkuntza

943 13 05 77
685 71 85 95

• Lesioak: bihurdurak, tendinitisak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekuperazioa.

• Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesotaping-o, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioba (GAH),

REDCORD



Ibai Ondo 1, Bajo - Orio
sinergiafisioterapia.com





SAN JOAN GAIA

Ekainaren 23an herriko sorginak suaren inguruan elkartu ziren

Urteko egunik luzeena. Udako solstizioa. Sua. Sorginak. Akelarrea. Izpiritu txarrak uxatu eta solstizio berria osasuntsu hasteko erritua da sua piztearena. Tradizioari jarraiki, Orion suaren inguruan dantza egin zuten ekainaren 23an, 90 bat haur eta gaztetxoek Harribil Dantza Taldearekin batera. Herriko sorginek Kosta tailerretik atera eta Orioko kaleak hartu zituzten, herrian barrena kalejiran ibili ondoren, dantza emanaldia eskaini zuten suaren inguruan, Ikastola aurreko plazan. Aian ere sua egin zuten baserri askotan. Tradizioari jarraituz, herritar zaharrenek *San Juan txiki* kantuarekin ospatu dute solstizioa baserri batzuetan, beste batzuetan gaztetxoek izan dira gehien gozatu dutenak.



San Nikolas kofradia 192



6-2019

“Meza Nagusian eta hiletetan sakratua da niretzat kantatzea”

Ramon Mari Oliden

Musikari erretiratua

Eguneko zentrotik atera eta Zaharren Babeslekura bidean, bisitan etorri dira kultur etxera Ramon Mari Oliden eta Mari Carmen alaba. Ez dira hilabete asko pasa Ramon Mari Elizako koroan kantatzeari laga zionetik, berriketarako eta Elizara joateko gogoia ez zaizkio ahitu ordea.

RIKARDO UZKUDUN

Han eta hemen gustura ibili izandakoa da Ramon Mari. Bandan ez bazen, txarangan, kantuan edo dantzan. Musikazale amorratua, oraintxe arte aritu da elizan kantari. Horretaz gain arrantzale, mekaniko, futbolinetako nagusi eta soziedadeko presidente izana da Ramon Mari. Ez zioten Michelinen *Todopuesto* kategoria alperrik eman.

Zer moduz zaude Ramon Mari?

Ondo, ustez behintzat.

Orietarra izanda, itsasoan ibilia izango zara, ezta?

Bai, San Antonion. 13 urtetan ibili nintzen itsasoan, eta gero, Alberto anaiaren bitartez, Michelinen hasi nintzen, lehorrean, jubilatuta arte.

Orduan gehiago irabaziko zen ba itsasoan lehorrean baino?

Bai, nahi luke. Gainera, ondo ibiltzen ginen gu, oso arrantza onak egiten zituen gure baporeak.

Eta, hala ere, lehorrean.

Ezina etorri zitzaidan. Bronkiotako arazoak izan nituen,

azkenean kamainetara ere jaitsi ezinik geratu nintzen, oso gaizki. Manuel Sarasua *Arratolak* eta Altxerriko Azentzio Lizarralde bazuten nahikoa errukia nirekin. Goian, panelekin eta abar, niretzako propio leku bat preparatu zuten arnasa ondo hartu eta lo ondo egiteko. Kako lanetan ondo ibiltzen nintzen ni, baina azkenerako, hura ere ezin!

Ondo nengoela artean, behean makina ondoan egiten nuen lo, txukinezko, arto-buru hostotzezko, ohean. Bada, behin, moila zaharretik joandako arratoi handi bat bota behar izan nuen putzutara, bodegara gazta edo sardina zaharrak jatera joandakoa.

Eta musika, noiztik izan duzu afizio?

Gazte-gaztetatik. Soldadu Ferrolera joan nintzen, eta han ere musikari. Fiskornoa, tronpeta militarra, eman zidatenean hemen ostegunero jotzen genuen pieza –kantuan hasi da Ramon Mari– jotzen hasi nintzen komandantearen aurrean. Ez zidan lau nota jotzen laga! Hura ikusita, tronpeta bila etxera etortzeko esan zidan



Ramon Mari Olliden, KARKARArekin izandako solasaldian.

“Ezina etorri zitzaidan. Bronkiotako arazoak izan nituen, azkenean kamainetara ere jaitsi ezinik geratu nintzen.”

“Bi urte pasa behar izan genituen Ferrolen. Egun guztia musika jotzen pasatzen genuen”.

komandanteak. Ordurako, Joan anaiak, han egon baitzen hura ere, esana zidan etxera bueltatzeko permisoa izan nezan: *instrumenturik ez eraman behintzat, e! Gero bila etorri beharko dek eta*. Eta horrela, hasieran lau eguneko baimena eman zidaten, baina lau gutxi zirela esan eta, azkenean 15 eman zizkidaten. Hala eta guztiz ere, bi urte pasa behar izan genituen Ferrolen. Egun guztia musika jotzen pasatzen genuen, *jura banderak* egiteko eta.

Dantzan ere ibilila zara?

Bai dantzan ere bai, geroztik. Dantzari txikitik eta abar. Eta bandaz aparte, txaranga eta, orain dela gutxi arte, otxotean ere bai.

Oriotar askok Elizan ezagutu zaitugu kantari.

Urte askoan aritu naiz bai. Don Santiagorekin ibili ginen, Azurzanekoa piano jotzaile genuela, eta Don Soterorekin ere bai, pentsa. Soldadu joan aurretik hasi eta ia orain arte. Meza Nagusian eta hiletetan sakratua zen niretzat kantatzea. Karroan nagoenetik ezin gora igo.

Lotua izango zen ba zuretzat igandero Meza Nagusira joan edo hileta guztitan kantatu beharra, ala?

Nik ez dut inoiz perezarik izan kantatzeko, normal egin



San Antonio baporeko arrantzaleak.

dut beti, ohituta geunden eta. Eta kanpora ere, ez gara apenas atera izan. Bilbo aldera, estropadetara bakarrik!

Gustura beti.

Bai, akordatzen naiz, sanikolasetan bandarekin Felipe Arostegi edo Joan gure anaia zuzendari genuela, hiru edo lau pieza jo eta nola txikiteora joaten ginen, ordu erdiko *deskantsoa* egiteko. *Hemen zer pasatzen da?* esaten zuen jendeak. Baina, neskek ez zuten balsean egin nahi izaten mutilekin, eta guk hori ikusita: *A bai? mutilekin ez? ba ez dute berak ere egingo!* eta txikiteora joaten ginen kar, kar, kar.

Zer oroitzapen dituzu futbolinean inguruan? -Salon Oliden aretoa Mari Carmen emazteak eta Ramon Marik eramaten zuten. San Nikolas karkaran zegoen eta neska-mutil koskor pila bat juntatzen zen, futbolinean, ping-pong-ean edo bilarrean jostatzeko-

Jende mordo bat ibiltzen zen. Akordatzen naiz hasieran goiko solairuan ere futbolinean jarri genituela. Behin gora igo eta konturatu nintzen, ordea, porterian txapela jartzen zutela pilotarik ez barrura sartzeko, eta behera jaitsi genituen. Gero, goian, ping-pong-eko mahaiak



Dantzari Txikien egunean, plazan eskainitako saioa.

jarri genituen, hura behetik erlojuarekin kontrolatuz moldatu ginen, denboraren arabera ordaindu behar izaten zen eta.

Ondo moldatzen al zineten kaxkar jendearekin?

Hasieran bai, hasierako mutil-koskorrak nobleagoak ziren. Gero, ordea, kontrolatu ezinik ibiltzen zen Mari Carmen, askotan bakarrik gainera. Hasieran herrikoak ibiltzen ziren gehienbat, baina gero Zarautz eta Usurbilgo jendea etortzen hasi zen eta haiekin ezin! Armarioak ere gilzapetu egin behar! Aldameneko *Bosteko haria*-koen futbolinean ere kristonak egiten zituzten. Zerbeza edan ezker akabo. Etorri ondo egiten ziren baina zerbeza bat edaten zuten garaian....

Eta hortxe ondoan, San Juan Elizpe soziedadeko presidente makina bat urtetan.

21 urte. Nire bigarren etxea zen. *Joxe Zekorrak* gazte batzuk bidaltzen zituen futbolineatik bere etxera bokadillo bila.

Hasiera txintxo-txintxo egiten zien errekadua, baina gero ezta diru truke ere. Mari Carmenek gaizki pasatzen zuen hura ikusten zuenean.



Herriko Txaranga kalez kale. 1965



Anuska Esnal, Joxe Angel Zalduaren eskutik alkate makila jasotzen. KARKARA

Alkate makila eskuz aldatu da Orion

Hauteskundeetan bozkatuenak izan ziren alderdiek hartu dute alkate makila Aian eta Orion datozen lau urteetara begira, EAJko Arrizabalagak eta EH Bilduko Esnalek. **Historian lehen aldiz, emakumeek izango dute bi herrietako gidaritza.**



Anuska Esnal en lehen minutuak alkatetzan. KARKARA

TESTUA: INTZA UNANUE ETA AIORA LARRAÑAGA

Lau aste pasa dira hauteskondeetatik, herriak datozen lau urteetako udal gobernuak eratzeko bere botoa eman zuenetik. Negoziaketa, urduritasuna eta intriga izan dira azken hiru asteetako dinamika udalerrri askotan. Modu batean, baita Orion ere. Hauteskondeetako emaitzetan EH Bildu izan zer garaile, herriko historian lehen aldiz.

Ekainak 15, larunbata, 9:00etan hasi zen udalbatzar berria eratzeko eta alkatea aukeratzeko bilkura. Udaletxeko Batzar Aretoa herritarrez bete zen segituan, horrela, hasiera eman zioten bilkurari.

Zinegotziek lekua hartu eta lehenik eta behin, legealdi guztietan egiten den bezala, adin mahaia osatu zuten: EH Bilduko Xabi Iburguren izango da legealdi honetako zinegotzirik gazteena, EAJ-ko Jose Javier Gomez de Segura, berriz, zaharrena.

Segidan, gainontzeko zinegotziek beren kargua zin egin eta alkatearen aukeraketa hasi zen. Idazkariak orri zuri bana eman zien mahai kideei, botoak idatzi eta berehala hasi zen kontaketa. Anuska Esnal Olidenek sei boto lortu zituen, Lourdes Salsamendi Goñik, bost. Abstentzio eta boto zuri bana izan ziren. Horrenbestez, Anuska Esnal izendatu zuten alkate.

Kargu berria zin egin eta Joxe Anjel Zalduak emandako alkate makila jaso zuen Esnalek: *Errespetuz, herritar guztientzat eta herriarentzat lan egiteko prest gaude.*

Esperientzia eta balio askoko taldea delakoa gurea. Horregatik, uneoro aipatu dugun elkarlanerako zubiak eraikitzen jarraituko dugu guztiekin, parte hartzea sustatuz eta herritik eraginez. Denontzako dagoelako lekua, denok egon behar dugulako.



Udala osatuko duten EH Bilduko zinegotziak. EH BILDU



Nekane Arrizabalaga beste lau urtez alkate. KARKARA

Uadalbatza berria osatzeko eta alkatea aukeratzeko udalbatzarra egin zuten ekainaren 18an, 19:00etan, Aian. Karguhartzean ez zen ezustekorik izan eta Nekane Arrizabalaga (EAJ) aukeratu dute alkate, jeltzaleen sei hautetsien botoekin. EH Bilduko bost zinegotziek Iñaki Telleriaren aldeko boza eman zuten. Hala, datozen lau urteetan ere Arrizabalagak jarraituko du alkate karguan.

Legeak dioenari jarraituz, EH Bilduko Iñaki Telleriak eta EAJko Miriam Sarasolak –zinegotzirik zaharrena eta gazteena, hurrenez hurren– osatu zuten udalbatza eratzeaz eta alkatea aukeratzeko bozketa zuzentzeaz arduratu zen adin mahaia.

Lankidetzaren helburu

Bozketaren ondoren, Arrizabalagak hartu zuen hitza, eta adierazi zuen *ilusioz* abiatu duela agintaldia udal gobernuak, eta *herriaren alde lan egitea* izango dela beren helburua aurrerantzean ere. Horrez gain, azken urtetan bidelagun izan dituen zinegotziei eskerrak eman zizkien Aiako alkateak, urte hauetan egin duten lanagatik.

Arrizabalagaren ostean, EH Bilduko Aitor Arregik hartu zuen hitza, eta EH Bildu lanerako prest dagoela azaldu zuen. *Eskuzabal gatoz, lanerako pronto. Hala ere, ados ez bagaude adierazi egingo dugu. Ez da ezer*

gertatzen. Zuek herriaren zati baten ahotsa zarete, eta gu bestearena. Beti ez gara uztartuta ibiliko, baina hasiera batean elkarrekin bidea egiten saiatuko gara. Lau urte hauetan hemen izango gara.

Ildo horretan, EH Bilduko zerrendaburu Iñaki Telleriak azpimarratu zuen, bi alderdien artean harreman ona izatea ezinbestekoa dela herriarentzat. Bat etorri zen Arrizabalaga ere, eta erantzun zuen hori izan dela Aiako EAJren jarrera beti.

Bestalde, EH Bilduko Gontzal Aldaik, EH Bildutik *benetako lankidetz*a sortu nahi dutela azaldu zuen, *irekia eta parte-hartzailea*. *Bidean ikusiko gara*, erantzunez amaitu zuen hitzartzea Aiako alkateak.



Udala ostatu duten zinegotziak. KARKARA

“Nola presta daiteke haur bat gurasoak hilean behin ikusteko?”

Patxi Uranga eta Olatz Lasagabaster

ETAko presoak

Urtarrilean hiru urte beteko ditu Uranga eta Lasagabasterren alaba Xuak, eta orduan Valentziako kartzelatik atera, eta Euskal Herrira ekarriko dute, amonarengana. Gurasoek kartzelan jarraituko dute, iaz zigorraren hiru laurdenak bete zituzten arren. Egoera salatzeko hainbat ekimen egingo dituzte datozen hilabeteetan Orion eta Usurbilen.

NOAUA-KARKARA

Herritik 600 kilometrora daude preso Patxi Uranga oriotarra eta Olatz Lasagabaster usurbildarra, eta beraiekin bizi da Xua alaba. Ekainean 10 urte bete dira espetxeratu zituztenetik, eta iaz zigorraren hiru laurdenak bete zituzten arren, 2021eko ekainera arte ez dituzte aske utziko. Alabak, ordea, hiru urte beteko ditu datorren urtarrilean, eta ezingo du gurasoekin bizitzen jarraitu. Euskal Herrira ekarriko dute, amonarengana. Egoera hori salatzeko eta bi presoen askatasuna eskatzeko, lagun eta senideek Xua Gurasoekin Etxera izeneko ekimena jarri dute martxan. Besteak beste, sinadura bilketa egingo dute, baita mozio bana aurkeztu ere Orioko eta Usurbilgo udaletan. **Picassenteko espetxean bizi zarete hirurok, baina aparte era berean. Zein da une honetako egoera?**

Xua eta biok batera bizi gara amen moduluan eta Patxi gizonetzkoen modulu arrunt batean dago. Astean bitan ikusten dugu elkar; astearte arratsaldetan ia ordubeteko bisita intermodularra izaten dugu hirurok eta ostiral goizetan senideekin bisita. Horrez gain, elkarbizitzako aurrez aurrekoa –4 ordu– eta aurrez aurreko familiarra –ordu eta erdi– ditugu hilero. Patxik urtebete behar du nik astebetez Xuarekin ematen dudana denbora egiteko.

Gogo handiz eta ilusioz egoten gara hirurok une horien zain, baina izatez, hutsaren hurrengoa de elkarrekin egoteko dugun denbora tartea.

Xua 2017ko urtarrilean jaio zen. Une pozgarria baina baita ere une oso gogorak bizi izan zenituzten.

Zurekin zen Olatz, Izarren ama Sara Majarenas. Nola bizi izan zenituen une haiek?

Xuaren jaiotzaren inguruan oso une gogorak bizitzea egokitu zitzaigun, bai. 2017ko urtarrilaren 15ean saiatu zen Izarren aita alaba hiltzen, eta hori guztia Sararen ondoan bizi izan genuen. Ez dago hitzez azaltzerik une haietan sentitu eta bizi izan genuena. Agian *shock*-a da guztia hoberen definitzen duen hitza. Sinestezina baitzen dena; ez zitzaigun buruan sartzen gertatu zenik ere. Halako gauzak gure inguruan gertatzea ez da batere ohikoa eta sentimendu leherketa ikaragarria izan zen hura; mina, haserrea, ezina, tristura... Sarari laguntzea eta babesa ematea izan zen gure helburu nagusia.

Lehenengo bi egunak eta gauak gurekin pasa zituen eta gero moduluz aldatu zuten. Elkar ikusteko genituen tarte txikietan ematen zigun Izarren berri. Hura gertatu eta lau egunera jaio zen Xua.

Biloba ezagutu ahal izateko 600 kilometroko bidaia egin zuen zure ama Mari Karmen Anzaren gaixotasun larria bizitzea egokitu zitzaizuen. Dena batera



egokitu zitzaizuen.

Bizitzako unerik zoriontsuena eta bereziena mingarrienetako batekin elkartu zitzaigun, bai. Aitona Joxe ere joan zitzaigun, Xua jaio eta ordu gutxira. Oso oso gogorra izan zen dena. Zorionez, amak indarra aterazuen hura gairatzeko eta orain bilobarekin ikaragarri gozaten ari da.

Hurrengo aldaketa Xuak 3 urte betetzen dituenean aurreikusten da, Euskal Herrira etorriko da. Une zailenetakoa izango da. Prestatzen ari zarete une horretarako?

Erabat prestaturik ez dago. Nola presta daiteke 3 urteko ume bat gurasoak hilean behin ikusteko? Nola gurasoak alaba hilean behin ikusteko? Xuarekin bere irteera lantzen ari gara; badaki 3 urte betetzen dituen egunean amonarekin joango dela Usurbilera bizitzera. Garbi dugu egoera zein den baina emozionalki guztiz prestatzea ezinezkoa da oso une gogorra izango delako. Eta gure kasuan tira, alde dugu 17 hilabeteko kontua izango dela; kide askoren kasuan urte pila izaten dira.

Hala ere gogorra izango da berdin-berdin.

Banaketa ekidin al daiteke lege arrunta aplikatuz gero?

Baldintzapeko askatasunaren aukerarekin esaterako.

Bai, jakina. Legea aplikatuz gero, legea bere horretan, injerentzia politikorik gabe, kalean beharko genuke

2018ko ekainaz geroztik. Orduan bete genituen zigorraren 3/4ak eta legeak dio une horretatik aurrera presoak kalera atera litekeela baldintzapean.

Gure kasuan baldintza guzti-guztiak betetzen ditugu askatasuna berreskuratzeko espainiar legediaren arabera: ez dugu erantzukizun zibila ordaindu beharrik, portaerari dagokionez espeditatea garbi dugu... kalean ez bagaude estrategia jakin baten baitako erabaki politikoen ondorioz da.

Kartzela berean egon ahal izateko hamaika oztopo izan dituzue. Ezkondu ostean ere, banatuta izan zaituztete?

Guztira ia bost urte eman genituen espetxe desberdinetan banatuta, ezin elkar ikusi. Izatezko bikote paperak eduki eta batera bizi ginelako aski frogatua izan arren, behin eta berriro ukatzen ziguten espetxe misto batera eramane eta asteroko bisitak egin ahal izatea. Ezkondu ere horregatik egin ginen, berez gure asmoetan sartzen ez zen arren, pentsatuz ezkontza agiriarekin ez zutela helduleku juridikorik izango banatuta mantentzen jarraitzeko. Alferrik. Ezkondu eta laupabost bisita eginda, berriro banatu gintuzten eta beste bi urte eta erdi pasako ziren osterako espetxe berean elkartzeko. Ez, ordea, espetxe administrazioaren borondatez, baizik eta Entzutegi Nazionalean enegarren

helegitea aurkeztu eta epaileak bigarren edo hirugarren aldiz guri arrazoia eman ostean. Ordutik, 2014ko otsailetik, espetxe beretan egon gara, nahiz eta Xua jaio zenean hilabete eta erdiz berriro banatuta eduki gintuzten.

2014ko otsailean elkartu zintuzten Foncalenteko espetxean. Nolako bizi-baldintzak zenituzten? Okerrago emakumeentzat? Nolako zen zuen hartu-emana?

Foncalenteko bizi baldintzak nahiko kaskarrak dira. Astean behin ikusten ginen 40 minutuz eta, horrez gain, hilero aurrez aurreko familiarra eta intimoa genituen, bakoitza ordubeteko. Legeak ezartzen duen gutxieneko denbora da hori. Emakumeak 2015eko urrira arte isolamenduan bizi ginen. 1. gradu sailkatuta egonik, han sartzen gintuzten. 24 orduak espazio txiki-txikian ematen genituen. Patioa oso txikia zen eta neguan, esaterako, bizpahiru hilabetez ez zen eguzkirik sartzen han.

Gizonezkoen kasuan, Valdemorotik Foncalentera iritsi eta 1. gradu modulu izan ninduten urte eta erdiz.

Baldintza gogorretan, beste moduluetan bizitzeko gatazkatsuegiak diren preso inguraturik. Oihana zen hura; zarata etengabea, liskarrak, beti adi ibili beharra... egoeraren adibide bat jartzearren, euskaldunak gorroto dituen preso batek tabako paketea oparitu zion beste bati gutako edozeini eraso egin ziezaion. Bai egin ere. Eskuz egindako labana batekin atzetik isilka joan eta bizkarrean hiru ziztada sartu zizkion kide bati.

Inorentzako segurtasun baldintzarik ez zen betetzen eta azkenean modulua itxi eta profil lasaiagoko presoak sartzeko berregituratu zuten.

Picassentera haurdun zinela lekuz aldatu zintuzten Olatz. Emakumeentzako espetxea omen da, baina zer-nolako bizi baldintzak dituzue bertan?

Amen modulu bizi gara lau kide gure txikiekin. Oinarrian, bizi baldintzei dagokionez, ez dago alde handirik modulu arruntekin, baina umeekin egonda zenbait gauzetan malgutasun handiagoa dago. Ziega txiki batean bizi gara, 12 metro koadro gutxi gorabehera, eta bertan ematen ditugu 15 ordu egunero. Espazio dezente dago patioan eta txikiek parketxo bat ere badute. Jardín txiki bat eta zuhaitzak eta landareak badira. Barruan, berriz, ludoteka dago hainbat jostailurekin. Umeentzat egokitutako esparrua da baina, betiere, kartzelak markatzen dituen mugen barnean.

Usurbil eta Oriotik 700 kilometrotara zineten orduan. Dispersioak zer nolako ondorioak izan zituen zuen senide eta lagunengan?

Dispersioak senide eta lagunengan duen eragina ikaragarria da edozein kideren kasuan. Denbora asko eman behar dute errepidean eta horrek arrisku handia dakar. Eta tentsioa. Bidaia egiten duenarentzat eta barruan denarentzat. Beharbada, alderdi horri ez zaio hainbeste erreparatzen, baina emozionalki kostu handia du distantzia horrek suposatzen duen guztiak. Astero-

astero hutsik egin gabe izan ditugu bisitan senide nahiz lagunak eta ezingo diegu sekula behar beste eskertu.

Argi eta garbi esan beharra dago sakabanaketa eta dispersioa, gure aurka baino, senide eta lagunena kontra hartutako neurriak direla. Guri eskarmentua emateko erabiltzen dituzte. Kartzela txarrak eta txarragoak dauden arren, guretzat denetan zerua berdina da beti. Ezarritako zigorra propina galantarekin ari gara ordaintzen, sententzian jasota dagoena bano askoz gehiago. Baina senide eta lagunak? Ze erantzukizun dute gu espetxera ekarri gintuen auzian? Ze ardura zeukan gure lagun Santik, Foncalenten bisita egitetik bueltan istripua izan eta autorik gabe geratu zenean? Jakina, bidaia luze horiek egiteko erabakia gure ingurune afektiboarena da, baina eurek astebururo milatik gora kilometroko joan-etorria egin behar izatea, Martutene etxe ondoan izanda, badakigu nortzuen erantzukizuna den.

Hamar urteetan nola mantentzen da harremana lagunekin, senideekin...? Zer nolako lotura mantendu duzue zuen herriekin -Orio, Usurbil-. Eta herriok zuekiko?

Lagunekin eta senideekin bisiten bidez, telefono deien bidez eta gutunen bidez mantentzen dugu harremana. Komunikazioak mugatuak dira eta interbentzioa ezartzen digute: bisitak eta deiak (bosna minutuko zortzi dei astean) grabatzen dituzte, gutunak gaztelaniara itzuli eta iristen direnak hilabete ingurura iristen dira.

Oraindik orain, komunikazio guztien interbentzioarekin jarraitzeko ematen dituzten argudioak ETA existitzen zeneko berdinak dira: segurtasunagatik ekidin beharra dutela espetxea eta kartzelariei buruzko informazioa ateratzea ondoren, kaletik, haien kontra ez jotzeko. Beraz, harremani eusteko oztopoak jartzen dizkigute etengabe, baina guzti horien gainetik jarraitzen dugu harremanak elikatzen. Oriorekin eta Usurbilekin ere lotura mantendu dugu etxekoen eta lagunena bidez, herritarrek helarazitako elkartasun mezuen eta hitzen bidez eta baita Noau! Eta KARKARari esker ere.

Nola ikusten duzue egungo egoera politikoa, batik bat testuinguruaren aldaketarekin (Aieteko agiriaren ondoren, ETaren desagertzearen ondoren). Presoen egoera aldatu da? Ze perspektibak ikusten dituzue etorkizun hurbilean? Kondena osotasunean (12 urtekoa)

“Astero-astero hutsik egin gabe izan ditugu bisitan senide nahiz lagunak eta ezingo diegu sekula behar beste eskertu.”



bukatu aurretik etxeratzeko esperantzarik ba al duzue?

ETAk borroka armatua alde batera utzi eta gerora desagertu zenetik zerbait argi geratu bada, zera da: Erakundea Euskal Herriak bi estatuekin duen gatazkaren ondorio zela eta ez, askok saltzen jarraitu nahi duten moduan, gatazkaren jatorria bera. ETA amaitu zen baina Euskal Herriak menderatuta jarraitzen du eta askatasunerako bidean jartzeko lan handia dugu aurretik. Independentziaren aldeko gehiengo sozial sendoa artikulatzeak berebiziko garrantzia du orain, lehen urrats gisa.

Presoei dagokigunez, egoera oso pixkanaka ari da aldatzen. Dispersioa eta gainerakoak aitaren batean jarri zituzten martxan baina eskubide urraketa sorta amaigabeari amaiera emateko presarik ez zaie nabari.

Egia da kide batzuk gerturatu dituztela eta gutako hainbat 1. gradutik 2. gradura pasa gaituztela berriki. Baina Soria, Villabona, Leon... urrutiegi egongo dira beti 40 minutuko bisita bat egitera joateko; nahiz Almeria edo Sevillarekin alderatuta *gertu* egon, Euskal Herrian beharko baigenuke denok aspaldi. Hauteskundeak PSOEk irabazita, ikusi beharko dugu orain arte egindako mugimenduek segida izango ote duten eta zein erritmotan.

Gure kasuan, bi urte falta zaizkigu etxera itzultzeko eta itxaropenari heltzen badiogu ere, oso-oso zaila ikusten dugu 2021eko ekaina baino lehen askatzea. Ez dugu burua horretan, zeren gu aske lagatzeko irizpide juridikoa ezarri beharko lukete irizpide politikoaren gainetik eta, gaur-gaurkoz, Madrilgo eta Gasteizko gobernuak ez ditugu klabe horretan ikusten.

Kartzelaz kanpokoak ere aurrera egin du urteotan. Herria,

herritarrak... aldatuz joan dira. Bertigorik ematen dizue laster zuen burua hor ikusteak?

Bai. Hamar urtean asko aldatzen dira gauzak: espazioa bera, jendearen bizimodua, harremanak... dena. Espetxean gauden bitartean kaleko bizimodua idealizatzeraz jotzen dugula esango genuke eta kalean dena ez da arrosa kolorezkoa.

Bestalde, presoak preso sartu zuteneko ingurunea eta aurpegiak ditu buru-bihotzetan eta oroitzapen horiekin bizi da, baina buruan dugun hura erabat aldatu da. Egokitzapen prozesua beharko dugu, zalantzarik gabe, hemendik ateratzeko.

Gorputza preso izan duzuen bitartean, zer egin duzue zuen ideiak aske izan daitezten?

Horixe du espetxeak, fisikoki bakarrik giltzaperatu zaitzakeela. Buruak aske jarraitzen du; ideiek, pentsamenduek, sentimenduek eta ametsak aske jarraitzen dute. Agintariek bestelako mezua zabaltzen duten arren, espetxe sistema pertsona ezeztatzeko diseinatua dago eta preso dagoenak indarra atera behar du egunero munstroari aurre egiteko. Ez da erraza.

Esan bezala, espetxe sistemak presoak otzantzea, despertsonalizatzea eta alienatzea du helburu. Eta zer esanik ez euskalduna eta preso politikoa bada. Izan ere, bera makurraraztea sari politikoa bilakatzen da.

Kontatu ahalko genituzke bere lanean zorrotz, baina preso eta pertsona gisa modu humanoan tratatu gaituzten hainbat kartzelerok esandakoak, aitortuz guri sistematikoki egiten zaigunak ez duela izenik.

Horretan ere, ingurunearen eta kideen babesa ezinbestekoak izaten dira. Baina horren guztiaren gainetik ez da ametsak eta ilusioak giltzapetuko dituen barrote edo sarrailarik.

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47



ORIA
hortz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Oria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor daitezkeen arazoak.

KAIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Arrantzale kalea, 8
T 943 244 685
ORIO (Gipuzkoa)

Zigordia kalea, 18
(S.Frantzisko kalearekiko izkina)
T 943 021 834
ZARAUTZ (Gipuzkoa)

Erribera kalea, 10
T 943 543 323
ZUMAIA (Gipuzkoa)

Foru ibilbidea, 2
T 943 252 375
AZPEITIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

BODEGAS



01307 BAYOS de EBRO
Tel./Fax 245 60 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Gelariako Txakolina

Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net
www.txakolizudugarai.com

libe
dietetika
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com



TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

Tel. 660 332 756 · 679 428 851

txukunlorazantza@hotmail.com

Lorezaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak



Oreka
fisioterapia

943 13 35 37

Eusko Gudari, 54

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



HERATEGIA
PATXI OLIDEN
URDATEGIA

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA



GELATTO



OGI BERRI

943 578 176
Herriko enparantzan

lzozki naturalak Opilak

azku
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

ZARAGUETA ESKOLA



“Bost egun zoragarri izan dira.”

DBH4ko bidaiariak

DBHko bidaia egin duten ikasleekin elkartu gara –LH5.mailakoak–, gure txanda noiz iritsiko zain gauden bitartean. Berek nola pasa duten gustura entzun dugu.

Zein izan da zuen bidaia? Zenbat egunekoa?

Oriotik goizean goiz atera eta zuzenean Jacara joan gara, bertan egun bat pasa dugu tartean rafting egiten. Gero Bartzelonara abiatu gara. Hiria ezagutu dugu eta azkenik Port Aventura parkean bukaera eman diogu. Guztira bost egun zoragarri izan dira.

Zenbat pertsona joan zarete?

Hamazazpi ikasle, irakasle bat eta monitore bat.

Zer da gehien gustatu zaizuen? Eta gutxien?

Port Aventura pasatako eguna, dudarik gabe. Egunik eskasena azkena izan da. Alde batetik bidaia eguna izan delako, eta bestalde, azkena zelako eta bidaia bukatzen zelako.

Nola lortu duzue dirua bidaia aurrera eramateko?

Ikasturte oso bat igaro dugu dirua lortzen. Astero patata tortillak egin

ditugu ikasle eta irakasleentzat. Urtean zehar ETB-ko saio batzuetara joan gara ikusle moduan eta eskolan egindako festetan ere gure txokoa eduki dugu.

Horrelako bidaia bat egiteak zein antolaketa eskatzen du?

Arduratsua izatea eta txintxo portatzea. Ardura denok parte hartzeko dirua lortzerakoan. Azkenengo hilabetean nora joan, nola, zer egin... erabaki behar dira eta gela batean aukera desberdin asko azaldu daitezke.

Zein da horrelako bidaia baten helburua?

Gelakideekin ondo pasatzea, hurrengo urtean banatu egingo garelako. Bidaia berezia da, batzuk bide beretik jarraituko dugu, baina beste batzuekin harremana eten egingo da. Gainera eskolaz kanpoko giroa da eta lagunak beste era batera ezagutzeko aukera izaten duzu.

Zein aholku ematen diguzue datozen urteetarako?

Ahalik eta diru gehien lortzea, ondo antolatzea eta betirako geldituko den esperientzia denez, asko disfrutatzea.



Garazi Aranguren

Orio



rio, Gipuzkoako kostaldeko herri xarmenta eta lasaia, turisten helburu eta historia askoren sorlekua da. Natura ingurune ederrean dago, baina nola bizi gara gazteok bertan? Nola pasatzen dugu denbora librean?

Zalantzarik gabe, denok ados gaude herria polita dela. Alde zaharreko etxeak antzinako garai baten isla dira eta bertako kaleak erromesen bide bihurtu dira. Udan umeen algarak entzuten ditugu, goizero edota arratsaldero, mareen erritmora ibaiako uretara salto egiten dutenean. Itsasontziak, ostera, marinelez eta sarek betetzen dira. Baina uda nahi baino lehenago bukatzen zaigu. Udazkenarekin eta, batik-bat neguarekin, gazteontzat garai aspergarriak etortzen zaizkigu. Gazteok tabernetara joateaz gain beste aukerarik ez daukagu. Edo autobusa hartu eta inguruko herrietara denda eta merkataritza-guneetara joatea. Zer dauka herri honek guretzako? Zer behar dugu?

Ekintzak sortu behar ditugu gazteok denbora librean bertan pasa ahal izateko, herriari bizia emateko, kanpora joateko beharrik izan ez dezagun. Orio bi herri desberdin dira: udako etengabeko jarduna sosegu eta gehiegizko lasaitasun bihurtzen da neguan.

Laburbilduz, gazteoi baliabide eta ekintza gehiago –zinema areto bat?– eskaini behar zaizkigu, taberna, gunekomertzial, mugikor eta antzekoak alde batera utziz, gure aisian ondo pasa dezagun.

Gazteok tabernara joateaz gain beste aukerarik ez dugu.

Karkara³⁰urte

karkara.eus



Horra hor

Idurre Telleria

“Lan haren gauza ederrenetakoa lanera oinez joatea zer den ezagutzea izan zela esango nuke”.

KARKARAn lana egindako langileen anekdotak biltzen ari gara, esan zidaten. Zer kontatu, zer esan. Ez da, bada, lan makala jarri didatena.

Argi dago kazetari lanetan ez nintzela ibili; nire lana oso bestelakoa izan zen, beste mota bateko *kontuk* ibiltzen nituen, zenbatzekoak eta ez kontatzekoak. Lan horretan ere berria nintzen baina, tira, nola edo ala, ahalik eta hoberen aritu nintzen. Gogotsu. Giroak ere laguntzen zuen.

Lanari esker oriotar mordoa ezagutu nuen, eta noski baita berek niri ere, kanpotarra bainaiz.

Polita izan zen konturatzea KARKARAREN alde zenbat jendek egiten duen lana, musutruk; polita izan da baita ere herritar hauek guztiak ezagutzea. Eta, agian, lan haren gauzarik ederrenetakoa lanera oinez joatea zer den ezagutzea izan zela esango nuke. Oinezkoak bere abiadura horren baitan gauza sinpleekin gehiago disfrutatzen du; eta, hori etortzen zait bereziki burura, disfrutatzea. Hori izan baitzen gehien egin nuena bi urte haietan, bereziki gogoan ditudan nire bi lankideei esker!

eta hamaika bitxikeria



Nere Manterola

Nire aurrenekoa

"Madame Delarik deitzen zidan Jabik, -ri atzizkia asko erabiltzen nuelako".

Nik kazetari izan nahi nuen. Hamasei urte eta pasioa nuen idaztea. Amak esan zidan KARKARARA hurbiltzeko, joateko eta probatzeko zer zen benetan kazetari izatea. Herrian galdezka egitea izan zen nire aurreneko ardura. Lau pertsona bilatu, galdera egin eta argazkia atera. A ze izerdiak! Jendea galderara arte ondo, baina argazkiarekin atzera botatzen zen. Gero Jon Sarasuaren elkarrizketa etorri zen, nire lehenengo elkarrizketa luzea, noiz eta Gipuzkoako bertsolari txapelketan *tongo* ospetsu hura egin zuenean. Kaseteko grabagailuarekin elkarrizketa egin eta eskuz pasa nuen esandako hitz bakoitza, handik garbira berriz, gero ordenagailura. Elkarrizketa osoa buruz nekien. Askotan pentsatu izan dut erlojuko zenbat denbora hartuko ote nuen elkarrizketa hura argitaratzeko prestatzen. A ze lata eman nuen KARKARAN elkarrizketa harekin! Denak nazkatu nituen! Handik gutxira bost orri betetzeko ardura eman zidaten. Orduan hasi ginen han lan egiten genuen gutxi batzuk kobratzen, besteek borondatez jarraitu zuten. Nire aurreneko lana: 25000 pezeta bost orrirengatik. Batzuetan erraz betetzen nituen, besteetan, berriz, azken momentuan... Bileretan Iñakik harritzen ninduen. Paper txikiz josita izaten zituen patrikak. Paper txiki bakoitzean ideia bat. *Madame Delarik* deitzen zidan Jabik, *-rik* atzizkia asko erabiltzen nuelako. Han izan nuen lankide Ainara ere. Gaupasa ere eginak gara KARKARA inprentara sartu aurreko egunetan! Zenbat barre! Hamar urte izan ziren. Askok ikasi nuen hamar urte. Baina konturatu nintzen idaztea eta kazetari izatea ez dela berdina. Eta nik idaztea nuen maite. Kosta zitzaidan uzteko erabakia hartzea. Aurrenekoz zerbait utzi behar, *gaur utziko dut, bueno ez... hurrengo hilean*. Agur esan nahi eta ezin. Patata tortilla batekin joan nintzen nire azkenengo bilerara.

Semaforo bidezko sistema ezarri dute Euskotren eta Eusko Label ligetan



Hilaren 22an hasi zen Eusko Label Ligako lehen estropada, eta, 29an Euskotrenekoa. Berrikuntza batekin iritsi da denboraldia aurten, semaforoek eta sirenek markatuko dute estropaden irteera unea, eta ez epaileek astindutako banderek.

Traineru Kluben Elkarteko bazkideek azken bileran erabaki zuten semaforo bidezko sistema ezartzea, Donostian. Hala, hemendik aurrera desberdina

izango da estropaden hasierako unea. Txanda bakoitza hasi aurretik, epaileak lau traineruei dei egingo die euren irteera lekuan kokatu daitezen. Momentu horretan, itzalita egongo dira semaforoko argiak.

Argi gorria eta berdea

Ontziak lerrotatzen ari direnean, bi argiak keinuka hasiko dira, eta modu egokian kokatuta daudenean, kolore zuriko bandera altxatuko du epaileak.

Jarraian lau traineruen izenak esango ditu uretako epaileak. Gero, *adi* oihukatu eta argi gorria piztuko da semaforoan. Geldiune bat izango da orduan, eta irteerarako unea iristen denean, argi berdea piztuko da. Sirena soinua ere entzun ahalko da orduan. Une zehatz horretan jarriko dute martxan kronometrajea.

Epaileak talderen batek egindako irteera baliogabetzea erabakiz gero, argi gorria piztuko da aldizka, eta sirena hotsa ere entzungo da. Etenka piztu eta itzaliko diren argi gorri horiek ordezkatzeko dute bandera gorria.

Erlojupeko estropadei dagokienez, irteera izan aurretik keinuka hasiko dira bi argiak, ontziak irteera egiteko tokian kokatu daitezkeela jakinarazteko. Bost segundo falta direnean piztuko da argi gorria. Irteteko unea iristean, kolore berdez tindatuko da semaforoa, eta soinua entzungo da. Balizko irteerarako 20 segundoak igarotzean, hurrengo trainerua ateratzeko bost segundo falta direnean, argi gorria piztuko da berriz. Bost segundo horien ostean, argi berdea eta soinua izango dira berriz, bigarren ontzia irteteko.

Kirola

Sara Iparragirrek Añares Rioja ISB taldean jokatu du datorren denboraldian



Sara Iparragirrek Añares Rioja ISB taldean jokatu du 2019-20 denboraldian. Hala ere azken bost denboraldietan bere taldea izan den IDK Gipuzkoari lotuta jarraituko du. Saskibaloia jokari oriotarraren minutu gehiago jokatzeke nahiak eraginda, bi elkarrekin aukera berria eskaini diote. Emakumezkoen Ligako 2.mailan jolastuko du Iparragirrek Añares Rioja ISB taldearekin, hala ere hainbat entrenamendu egiten jarraituko du IDK Gipuzkoarekin. Bi entrenatzaileek erabakiko dute jokalariaren denboraldiko antolamendua, egoera pertsonala eta kirolaria kontuan hartuta. Oriotarrak 2014-15 denboraldia debutatu zuen Dia Ligan, bost partidu jokatu. Guztira, 87 partidu lehiatu ditu lehen mailan. Azken denboraldi honetan, 280 minutu jokatu ditu 28 partidutan.

IAT itv



Gizartea

Ziklomotoeen azterketa tekniko egingo da uztailaren 10ean

Herriko 50 cc-ko ziklomotoeek azterketa tekniko (ITV/IAT) egin ahal izango dute Orion bertan, uztailaren 10ean, asteazkenarekin. Azterketa tekniko Herriko Plazan egingo da.

Udaltzaingoak jakinarazi nahi die ziklomotoeak dituzten herritar guztiei aukera izango dutela horien azterketa tekniko egiteko herrian bertan.

Aldez aurretik txanda hartu beharko dute, Udaltzaingora etorrita edo telefonoz deituta: 943 830 028. Ordutegia hau izango da: 08:30etik 14:00etara.

Ekarri beharreko agiriak: Bere ziklomotoearen azterketa egin nahi duenak Herriko Plazara azaldu behar du, aldez aurretik hartutako egun eta orduetan, ziklomotoearen dokumentazioa ekarriz: Fitxa tekniko, Aseguruaren agiria eta Zirkulazio-baimena.

Azterketa tekniko pasatzeko, 28,17 euro ordaindu behar dira momentuan bertan. Udaltzaingoak gogorazten du derrigorrezkoa dela motorrei azterketa tekniko egitea eta berehala kontrolak egiten hasiko direla, motorrek azterketa pasa duten ala ez egiaztatzeko.

Zaharren Babesleku

Ekainaren 19an egingo du ikasturteko azken bingo saioa, Orioko Zaharren Babeslekuak

Asteazken arratsaldero erretiratuentzat eta pentsiodunentzat bingo saioa antolatzen du Orioko Zaharren Babeslekuak, Orioko Kultur Etxeko areto nagusian. Udan kultur etxeak ordutegi berezia izaten duenez, Zaharren Babeslekuetik jakinarazi dute, ekainaren 19an egingo dutela denboraldiko azken bingo saioa.

"Berez hilaren 26a da hilabeteko azken asteazkena, baina egun horretarako irteera antolatu dugu Santanderrera; beraz, ekainaren 19an egingo dugu ikasturteko azken bingo saioa".

Urriaren 2an ekingo diote berriz ere asteazkenetako bingo hitzorduari. Bestalde, Orioko pentsiodunen eta erretiratuen elkartetik azaldu dute, astero pentsio duinen alde egiten duten elkarretaratzeak ere ez dituztela egingo uda partean.

Udako zerbitzua

Martxan da txu-txu tren

Ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:00etara. Trenean bertan, Orioko kanpinean edota Turismo Bulegoan erosi daitezke trenean ibiltzeko txartelak. Euro bat balio du txartel bakoitzak, hamar erosiz gero, ordea, 6 euroren truke eskuratu daitezke.

PERTSIANAK
A K O M A Z
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

LEUNDA OKINGEDIA
ORDUTEGIA
ASTELEKENETIK - LARUNBATERA 7:00 - 20:30
IGANDE ETX JAI-EGUNETAN 7:00 - 13:30
TEL.FONA: 943-89.00.67

LUXARBE
igeltseritza

- Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.
- Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe
- Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

ur bide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20800 | Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

- Logela alokagai, Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551550
- Logela alokatuko nuke Orion. Beste lagunen baten bila ere banabil, elkarrekin etxebizitza bat alokatzeko. Tf: 688690385
- Garajea alokagai Orion. 15 metro karratu ditu eta sarrera Ixarra kalean du. Tf: 688 61 04 52

Lan eskaintza

- Langile bat behar da Goxokin, arratsalde lan egiteko. Esperientziaduna. Tf: 661351162 edo 943833920
- DBH1. mailako ikasle bati uda osoan klase partikularrak emateko irakasle bila gabiltza, goizez. Tf: 943 83 07 44

Lan bila

- Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tf: 674 12 32 93
- Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544
- Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinakoen zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziakin. Tf: 661133295
- Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636312231
- Neska lan bila. Barnezaintzailea,

- garbiketa lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin Tf: 632582365
- Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676441327
- Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tf: 642696038

Erosgai

- Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin dio zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tf: 623 17 95 37 zenbakira.

Salgai

- 13 metroko trasteroa salgai Kale Nagusian. Tf: 616300747

Etxe bila

- Familialia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tf: 661331113

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	03:50 eta 16:12	09:55 eta 22:14	○
02	04:29 eta 16:49	10:33 eta 22:53	○
03	05:07 eta 17:27	11:11 eta 23:33	○
04	05:47 eta 18:06	11:51 eta ____	○
05	06:29 eta 18:47	00:15 eta 12:32	○
06	07:13 eta 19:32	00:59 eta 13:16	○
07	08:02 eta 20:22	01:47 eta 14:04	○
08	08:56 eta 21:19	02:40 eta 14:58	○
09	09:58 eta 22:23	03:39 eta 15:59	○
10	11:09 eta 23:36	04:45 eta 17:08	○
11	12:23 eta ____	05:56 eta 18:20	○
12	00:49 eta 13:33	07:05 eta 19:30	○
13	01:57 eta 14:33	08:08 eta 20:31	○
14	02:56 eta 15:26	09:02 eta 21:25	○
15	03:48 eta 16:12	09:50 eta 22:13	○
16	04:34 eta 16:54	10:33 eta 22:57	○
17	05:16 eta 17:34	11:14 eta 23:39	○
18	05:56 eta 18:12	11:52 eta ____	○
19	06:35 eta 18:50	00:19 eta 12:30	○
20	07:13 eta 19:27	00:59 eta 13:09	○
21	07:51 eta 20:06	01:39 eta 13:48	○
22	08:32 eta 20:48	02:20 eta 14:30	○
23	09:16 eta 21:33	03:04 eta 15:16	○
24	10:06 eta 22:25	03:53 eta 16:07	○
25	11:04 eta 23:24	04:46 eta 17:05	○
26	12:06 eta ____	05:45 eta 18:07	○
27	00:27 eta 13:08	06:45 eta 19:09	○
28	01:29 eta 14:04	07:41 eta 20:05	○
29	02:24 eta 14:53	08:32 eta 20:56	○
30	03:14 eta 15:39	09:19 eta 21:44	○

ZAINZAKO BOTIKAK

UZTAILA:

- 1ean, Iriarte.
- 2an, Esparza.
- 3an, Gaminde.
- 4an, Esparza.
- 5ean, Iturria.
- 6an eta 7an, Etxeberria.
- 8an, Esparza.
- 9an, Gaminde.
- 10ean, Iriarte.
- 11an, Iturria.
- 12an, Etxeberria.
- 13an eta 14an, Gallo.
- 15ean, Gaminde.
- 16an, Larrañaga.
- 17an, Iturria.
- 18an, Etxeberria.
- 19an, Gallo.
- 20an eta 21ean, Zulaika.
- 22an, Gallo.
- 23an, Iturria.
- 24an, Redondo.
- 25ean, Zulaika.
- 26an, Esparza.
- 27an eta 28an, Iturria.
- 29an, Larrañaga.
- 30ean, Etxeberria.
- 31an, Gallo.

- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea,17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Esparza:** Santuturri plaza, 5-6 943 50 47 83 Zarautz
- **Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68 943 12 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea, 943 13 29 83 Zarautz
- **Iturria:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- **Redondo:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

www.podologia-oinarri.com
 943 575 361
 Arrantzale 63 · 20810 · Orrio



oinarri
 PODOLOGIA ZENTROA

itzilizaso@gmail.com
 Tel:943 83 07 84



Lizaso Dekorazioa
 Eusko Gudari, 48 20810 Orrio

Orio

Musika

• Ekainaren 29an, *Mendi Mendiyan* opera izango da Donostiako Kursaallean, 22:00ean. Oriotik joan nahi dutenentzat autobusa izango da. Ikuskizuneko sarrerak norberak erosi beharko ditu eta autobusa doan erabili ahal izango da, aurretik izena eman dutenentzat.

Dantza

• Ekainaren 28tik 29ra, *Kawadeni Afro-Camp 2019* ospatuko da, perkusio eta dantza afrikarren 4. topaketa. Zingira kanpinean Kawadeni taldekoek antolatuta.

Jaiak

• Orioko San Pedro jaiak ospatuko dira Ekainaren 28tik uztailaren 1era bitartean.
• Ekainaren 29an, larunbatarekin, Etxeluze Gaztetxearen 9.urteurrena ospatuko da. 19:00etatik 21:00etara poteoa izango da musika eta guzti, Etxeluzen.
• Bisiguaren festaren 12.edizioa izango da uztailaren 12tik 14ra. Otorduetarako erreserbak egiteko epea uztailaren 1ean zabalduko da.

Aisialdia

• Uztailaren 2an hasi eta hilabete osoan, Txurrunuski Elkarateak antolatuta Uda Txokoa eta Udaleku irekiak izango dira.

Hitzaldia

• Uztailaren 9an, 18:00etan, Xabier Mendiaraz kiropraktikoaren hitzaldia izango da Salatxo Aretoan: *Bizkar Hezurrean bilatu gaixotasunaren kausa*.

Zerbitzuak

• Ziklomotoreen azterketa teknikoa egingo da uztailaren 10ean, Herriko Plazan.

Aia

ELKANO AUZOKO SAN PEDRO JAIK

Ekainak 28, ostirala.

17:00 Ume jolasak.
Ondoren, merendola gerturazten diren ume guztientzat.
20:00 Jaiei hasiera emateko txupinazioa eta segidan parrilada.
Jarraian, helduentzako *ume-jolasak*.

Ekainak 29, larunbata. San Pedro eguna

8:00 Txupinazioa suziri eta kanpaiekin
11:30 Meza nagusia
Ondoren, Auzokoen arteko tortilla patata lehiaketa. Auzoko etxe bakoitzak tortilla bat ekarriko du meza aurretik. Epai mahaiak irabazlea erabaki ondoren, bertaratzen diren guztien artean banatuko dira tortilla pintxoak.
Bitartean Joxe Felix Zubizarreta eta bere motozerraren erakustaldia izango da, Izer eta Alabier trikitilariak girotuta.
21:30 Auzoko frontoian afaria.
Jarraian, Izer eta Alabierren eskutik erromeria.

Ekainak 30, igandea.

11:30 Meza nagusia eta herri kirolak.
Pilota, Aizkolaria eta Harri-jasotzaileak. Ansorregi eta Larrañagak girotuta.
18:00 Idi probak: Arroako Etxetxo, Hondarribiko Salbardin eta Urnietako Intxaurbururen idiak ariko dira deman.
Jarraian, erromeria Ansorregi eta Larrañagaren eskutik.

Ibilaldia

XXXV. Arantzazura oinezko ibilaldia izango da uztailaren 6an, larunbatarekin. Goizeko 5:00etan herriko plazatik.

ANDATZA AUZOKO SAN PEDRO JAIK

Ekainak 28, ostirala

09:30 Txupinazioa.
11:00 Haurrentzako jolasak.
Jarraian, Moto-molto lasterketa.
17:00 Haurrentzako puzgarriak.
21:30 Mutil Ardoren eta elkarteen afaria, Aristerrazun.
22:30 Erromeria, Izer eta Alabierren eskutik.

Ekainak 29, larunbata

11:00 Meza Nagusia.
Jarraian, adinduentzako salda beroa izango da.
13:00 Auzoko gazteen arteko herri kirolak. Trikitilariak girotuta.
14:00 Auzoko adinduentzako bazkaria, Aristerrazu jatetxean.
14:00 Bertso bazkaria, auzoko frontoian. Iker Zubeldia eta Agin Laburu bertsolariak abestuko dute.
22:30 Erromeria, Elizagoien Ahizpen eskutik.
01:30 DJ Pajarito.
05:30 Oilasko biltzea, trikitilariekin.

Ekainak 30, igandea.

11:00 Meza Nagusia.
Jarraian, Herriko Pilota Txapelketa, eta gero, trikitilariak.
18:00 Herri Kirolak. Xabier Orbegoza Arria Va eta Ugaitz Mugertza Mugertza II.a aizkolaria, eta Jesus Mari Iruretagoiena Izeta III.a eta Mikel Lopetegi Urria harri-jasotzaileak
Ondoren, sagardo eta pintxo dastaketa, trikitilariak lagunduta.
22:30 Erromeria, Astiazaran eta Narbaiza trikitilarien eskutik.
00:00 Jaiei amaiera emateko traka zaratatsua.

Uztaiak 5, ostirala

21:30-22:00 Mus saiorako izen-ematea eta saioa

Uztaiak 6, larunbata

Oilasko biltzeko afaria.

VILLA ANTILLA ONGIZATE ETA TALASOTERAPIA ZENTRO BERRIA

1.800 m2

Itsasoko ur klimatizatuko 6 igerileku

Sauna eta lurrunezko bainugela

Pedilubioa

Thalasso suite pribatua

Tratamendurako 8 gela



Thalasso zirkuituko prezioak

Sarrera 1	28€
5 sarrerako bonoa	85€
Hiruhileko sarrera	290€
Urteko sarrera	980€

Masajeak

Aurpegiko tratamenduak

Lokatzen eta algen bilgarriak

Gorputz eta silueta tratamenduak

Erritualak

Yoga itsasoko uretan



VILLA ANTILLA

THALASSO